

HASIERA

GAIAK ▾

ANTZERKIAARTEABERDINTASUNABERTSOLARITZADANTZAERAKUSKETA
EUSKARAGAZTEAKIRITZI ARTIKULUAKJAIALDIAKJARDUNALDIAK
JENDARTEAKIROLALITERATURAMUSIKAZINEMABESTELAKOAK

ATALAK ▾

KONTALARIAKBEREZIAKBULETINAMULTIMEDIAGURE BAZTERRETATIK
KS ARETOA

HERRIALDEKA ▾

ARABANAFARROA BEHEREABIZKAIAGIPUZKOALAPURDINAFARROA
ZUBEROAEUSKALHERRIA

ZOKKETAK ▾

DENDAOSTEKOAKAMAK

HOME / GAIK / LITERATURA / [BIDEOA] TOTI MARTINEZ DE LEZEAK IDATZITAKO 'BRETXA' ELEBERRIAREN EUSKARAZKO BERTSIOA ETA IZEN BEREKO IKUSKIZUN MUSIKALA AURKEZTU DITUZTE



(argazkia: Kultur Sharea)

GIPUZKOA LITERATURA MUSIKA NABARMENDUAK PORTADAN

[BIDEOA] TOTI MARTINEZ DE LEZEAK IDATZITAKO 'BRETXA' ELEBERRIAREN EUSKARAZKO BERTSIOA ETA IZEN BEREKO IKUSKIZUN MUSIKALA AURKEZTU DITUZTE

By Ainhoa Lores Aranda / 2022-03-15

Duela sei urte hasi ziren ikuskizuna lantzen. Vegaren hitzetan, “herritarren historia herritarrok kontatu nahi dugu. Bereziki, gure arbaso emakumeek pairatutakoa azaldu nahi dugu.

Toti Martínez de Lezea idazleak duela hamasei urte argitaratutako *Bretxa* eleberria euskarara ekarri du **Erein** argitaletxeak. Goizean aurkeztu dute liburua Donostian, izen bereko ikuskizun musikalarekin batera.

Eleberriak 1813an Donostian gertatu zen sarraskia kontatzen du. “Maritxu Altuna txokolategilearen ikuspuntutik ezagutuko dugu historia, bera hirian geldituko da negozioari eusteko, baina abuztuaren 31 helduko da eta horrekin batera herritarrek biziko duten amesgaiztoa. Gipuzkoan jaso zen gertakari ilun horretatik abiatuta herritarren bizitzan zentratuko da liburua”, kontatu du Uxue Razquin editoreak.

Martinez de Lezea pozik agertu da eleberriaren euskarazko bertsioarekin, “nik ezin dut euskaraz idatzi eta nire liburuak euskaraz ikustea opari handi bat da”, aitortu du.

Formatu handiko ikuskizuna

Liburuaren euskarazko bertsioa argitaratzeaz gain, Oihan Vegak eta Valen Moñuxek **Bretxa** izeneko ikuskizun musikala aurkeztu dute. Vegak berak konposatu du musika guztia eta Moñuxekin batera aritu da zuzendaritza lanak egiten. Duela sei urte hasi ziren proiektua lantzen. Vegaren hitzetan, “herritarren historia herritarrok kontatu nahi dugu. Bereziki, gure arbaso emakumeek pairatutakoa azaldu nahi dugu. Horregatik aukeratu dugu emakume batek idatzitako eleberria, zeinetan, hiru andre izango diren protagonista nagusiak. Hori dela eta, gure elkarteke partaide gehienak ere emakumezkoak izango dira obra honetarako.

Larrabetzuko idazleak adierazi duenez, “nigana etorri zirenean, proiektu erraldoi hau azaltzera, esan nien burutik jota zeudela eta nire etxean eroak ongi etorriak dira”.

Eleberriaren izenburua erabiliz, egitura handiko ikuskizun musikala taularatuko dutela azaldu du lantaldeak prentsaurrekoan, “1813ko Donostiako sarraskia, gure historiako pasarterik ilunenetakoa, orain arte egin ez den antzezlan formatuan plazaratuko dugu”.

Horretarako Bergara eta Gipuzkoa osoko hainbat talde eta elkarte kulturelek hartuko dute parte. Guztira 150 bat pertsona arituko dira oholtza gainean, tamaina handiko ekoizpen eszenikoan. Bergarako Musika Eskola, Donostiako Union Artesana edota Donostia 31 Rekreazionista Elkarteak dira obran parte hartzen ari direneteko batzuk.

Estreinaldia 2023ko urtarrilaren 13an izango da Donostiako Victoria Eugenia antzokian, baina urtean zehar, hainbat ekitaldi egingo dituzte hirian barrena, gertakizunaren 110. urteurrenaren harira: erakusketak, hitzaldiak...

Zabaldtu:

Tags: Bretxa, Erein argitaletxea, Euskal Literatura, Ikuskizun musikala, Oihan Vega, Toti Martínez de Lezea, Valen Moñux

← OSTIRALEAN HASIKO DA IRUÑA ROCK JAIALDIA NAVARRA ARENAN

[BIDEOA] MILAKA IRRIBARREREN ATLASA OSATZEKO 'INFINITU IRRIBARRA' EGITASMOA ABIATU DUTE →

BILATU

Bilatu ... BILATU



Lege oharra

✉ albisteak@kultursharea.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Salburuordetzak) diruz lagundua



KULTUR SHAREA

ZABALDU KULTURAREN LEIHO GUZTIAK ETA EUSKARAZ SHARETU

